

'Ilustrazioaren garaiko liburuak' **erakusketarekin parte hartuko du Foru** **Liburutegiak ondareari buruzko XI.** **jardunaldietan**

Urrian zehar, "Ilustrazioaren garaiko liburuak" izeneko erakusketa egongo da ikusgai Foru Liburutegian. Izan ere, erakusketa horrekin partu hartuko du liburutegiak Bizkaiko Foru Aldundiak gai horren inguruan antolatu dituen Ondareari buruzko Europar Jardunaldietan: "Argiak eta aurrerapena. Bizkaia Ilustrazioaren garaietan". Ehun bat ale biltzen duen hautaketa bat egin dute horretarako.

Ilustrazioaren garaian, funtsezko tresna bilakatu zen liburua, bai ideiak zabaltzeko, bai proiektuak azaltzeko, bai eta proiektuon berri emateko ere. Garai hartan, nabarmen handitu ziren inprimategiak, liburuen edizioak eta liburutegi publikoak zein pribatuak. Liburu haietako asko erabili zituzten euskal ilustratuek, bai ikasteko, bai ikasitakoa praktikan jartzeko, eta, hain zuzen ere, liburu horiexek egongo dira ikusgai Foru Liburutegian urri osoan zehar.

Liburutegiko erabiltzaileek bakan-bakanetan eskatzen dituzten aleak izaten dira, obra berriagoen artean aritzen baitira, jeneralean, ikasleak eta irakurleak. Dena dela, liburu horietan ondo jarrai dakioke gaur egungo munduaren hasierako arrastoari; hau da, antzinako jarreretatik eta sineskerietatik urrundu zen mundu arrazionalistaren abiapuntuari. Horrexegatik nahi du Foru Liburutegiak liburuok jendearengana hurbildu eta hain berri eman.

Haietako batzuk liburu ederrak dira, ilustraziodunak; beste batzuk, berriz, xumeagoak. Dena dela, mami bera dute guztiek: mundua arrazoimenaren legeen arabera deskubritzeko grina eta, horren bitartez, gizadiaren bizi-kalitatea hobetzeko gogo bizia.

"Argiak eta aurrerapena. Bizkaia Ilustrazioaren garaietan" lelopean egiten ari da Ondareari buruzko Europako Jardunaldien XI. Edizioa. Bizkaiko Foru Aldundiak urtero antolatzen ditu jardunaldiok, eta haietan hirurogei udal, museo eta kultur erakundek baino gehiagok hartzen dute parte. Aurtengo jardunaldietarako ezarri diren helburuen artean, zera dago, besteak beste: beren herrikideak zibilizatzen, eskolatzen eta adimenez janzten Bizkaiko zenbait herritarrek egin zuten ahalegina erakustea, haien lorpenak ezagutaraztea eta haien historia kontatzea.